

# Unibertsitatearen zeregina legegintza euskaldunearn: zuzenbide penaletik egindako hausnarketa'

(The function of Universities in Basque legislation: a reflection from the point of view of Penal Law)



LANDA GOROSTIZA, Jon-Mirena

Zuzenbide Penaleko irakasle titularra  
Euskal Herriko Unibertsitatea  
Sarriena, z/g  
48940 Leioa  
ldplagoj@lg.ehu.es

BIBLID [1137-1951 (2001), 8; 93-98]

**E**uskara juridikoak Zuzenbidearen adar guztiak hartzen baditu ere, lan honek zehazki Zuzenbide Penalari dagokion arloa euskaratzerakoan Unibertsitate mailan sortzen diren zailtasunak ditu aztergai, kontuan izanik terminologiak izugarritzko garrantzia daukala Zuzenbide Penalak behar bezala funtziona dezan. Hala, Zuzenbide Penalak dauzkan ezaguerriak azaltzearekin batera, jarduera juridiko-penala euskalduntzeko orduan sortzen diren arazoak aztertzen dira.

**E**ste trabajo analiza las dificultades que se presentan en la Universidad a la hora de euskaldunizar el ámbito del Derecho Penal, un campo jurídico en el que la precisión terminológica resulta esencial para su correcto funcionamiento. A continuación, además de exponer las principales características del Derecho Penal, se manifiestan los problemas existentes a la hora de euskaldunizar la actividad jurídico-penal.

**C**e travail analyse les difficultés qui se présentent à l'Université à l'heure de "basquiser" le milieu du Droit Pénal, un champ juridique dans lequel la précision terminologique est essentielle pour son bon fonctionnement. Ensuite, outre les principales caractéristiques du Droit Pénal, on expose également les problèmes qui existent à l'heure de "basquiser" l'activité juridico-pénale.

---

1. Sarrera. 2. **Jarduera juridiko-penala euskalduntzeko zailtasunetariko batzuk (arloan koordinatuak)**. 3. **Zigor Kodearen itzulpena: zailtasunetariko batzuk**. 4. **Azkeneko hausnarketa**.

---

## 1. Sarrera

Mahai-inguru honen gaia (*Elebitasuna, teknika legegilea eta erakunde akademikoak*) hain zabala izanik eta, ohikoa den bezala, txostengilearen denbora oso mugatua izateagatik, puntu zehatz batzuei buruzko hausnarketak baino ez nituzke plazaratu nahi, inolaz ere konklusio sendo gisa ulertu ezin direnak, baizik eta eztabaidarako proposamen bezala, aldi berean, nire iritzi apalean, **egungo egoeraren diagnostiko** egokia egiteko baliagarriak izan daitezkeelakoan. Izan ere, jarduera juridikoa euskalduntzeko orduan, diagnostiko zehatzetik bakarrik eman beharreko hurrengo urratsak eta, hala denean, zuzendu beharreko okerrak argitzen baitira.

Hortaz, Unibertsitate publikotik, Euskal Herriko Unibertsitateetik alegia, natorrenez, hango ikuspuntua izango da nagusiki jorratuko dudana, ardura jakin batetik abiatuta: **zein da Unibertsitate Publikoari dagokion erantzukizuna jarduera juridikoa oro har eta –horren barruan– legegintza euskaraz ahalbideratzeko ahaleginean?** Filologiatik –bereziki Euskaltzaindiatik–, Herri-erakundeetatik, erakunde politikoetatik edo operadore juridiko ezberdinetatik egin daitekeen ekarpena, ezinbestekoa zalantzarik gabe, begiestekotan, beti jarduera unibertsitarioaren behialaz zortzi urtetan zehar neureganatutako esperientzian oinarrituta egingo dut. Geroago, mahai-inguruaren izaerari dagokionez, gainontzeko parte-hartzaileekin elkarrizketari ekiteko unean, beta izango da bakoitzaren eskarmentutik kritikak eta ñabardurak gaineratzeko.

Unibertsitateetik bada ere, **Zuzenbide penaleko** irakaslea naizenez gero, arlo horretako **berezilari gisa** arituko naiz, beraz ez litzateke zehatza izango zirriborratuko dudana, besterik gabe, beste zuzenbide arloetara eramatea, hala nola, zuzenbide administratibora edo zuzenbide zibilera zein foru-zuzenbidera, kontuan hartu barik alegia, arloz arlo euskalduntze prozesuan

egindako ahaleginak ez direla inondik inora proportzio berekoak izan eta arloan koordinatuak, bereziki lege propioak eduki edo sortzeko ahalmena izateak ala ez izateak, edota arlo bakoitzarekin lotuta dagoen interpretatzeko tradizioaren ezaugarriek, egoera errotik alda dezaketela.

Horregatik, lehenik eta behin, Zuzenbide penaleko zenbait berezitasun azpimarratu nahiko nituzke, jarduera juridiko-penala euskalduntzeko trabak ulertzen lagunduko digutenak. Bigarrenik, traba objektibo horien isla gisa, Zigor Kodearen itzulpenean sumatutako zailtasunetariko batzuk aztergai izango dira, batetik maila abstraktuan esandakoa adibideen bitartez argitzeko asmoz eta, bestetik, gero izango dugun eztabaida pizteko helburuarekin.

## 2. Jarduera juridiko-penala euskalduntzeko zailtasunetariko batzuk (arloan koordinatuak)

Zuzenbide penalak duen **tradizio interpretatiboa** arloaren beraren objektuak baldintzatu du. *Ius puniendi* delakoaren bitartekoa zigorra izan da, heriotz-zigorretik pena askatasun-gabetzaila, horrek gizabanakoaren oinarriko eskubideen kontrako eraso larria (dela bizitzaren aurka, dela askatasunaren aurka) osatzen duela. Zuzenbide penalaren esku-hartzeak duen astuntasuna kontuan harturik, hots, funtsezko eskubideak murriztearen bitartez gauzatzen den neurrian, **pentsamendu filosofikoarekin** zerikusi zuzena izan du, dogmatika juridiko-penalaren jatorri modernoak, XIX. mendean, argi asko erakusten duen neurrian.

Ilustrazioko filosofiaren testuinguruan, atzerago ez jotzeagatik, gizabanakoa Estatutik (*Leviathan*) babesteko ardurari lehentasuna ematearen ondorioz, indarkeriaren monopolioaz abusatuz Estatuak egin zezakeen gehiegikeria kontrol juridiko eraginkorpean jarri nahi izan zen. Horra hor **legezkotasun printzipioaren zentzu modernoa, alegia, berme-funtzioa** betetzekoa, legeak hiritar orori segurtasuna eta babesa emango zizkiolakoan.

**Dogmatika juridiko-penalak** berea egin zuen hasieratik aipatu ardura, Kodegintzari esker gorputzen ari zen lege penalen interpretazioarentzat egitura kontzeptuala sortzeko bidean.

---

1. Lan hau 2000ko azaroaren 14 eta 15ean Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuak antolatutako *Eleaniztasunari eta teknika legegileari buruzko sinposioaren* ondorioa da, hain zuzen ere *Elebitasuna, Teknika legegilea eta Erakunde Akademikoak* izeneko mahai-inguruan aurkeztutako txostena baita. Sinposio horren lanak Eusko Legebiltzarrak argitaratzeko asmoa du, liburu monografiko batean bilduta.

Hain justu ere XIX eta XX. mendeetako penalista germaniarren ekarpena ukaezina da, sistema interpretatiboa sortu izana, zuzenbide positiboan oinarrituta egon arren, unibertsaltasunera jotzen zuena. Unibertsaltasun-uziak ahalbideratuko zuen Europa kontinental ia osora eta baita Latinoameriketara ere “gramatika” interpretatibo hura zabaltzea. Hala gertatu zen, zalantzarik gabe, Estatu espainiarrean, Mezger penalistaren lana ezagutu eta itzuli zenez geroztik (1935)<sup>2</sup>, jaito berria zen dogmatika espainiarra inportazio-lan bilakatu zela. Harrez geroztik eta gaur arte Alemaniako egitura kontzeptualekiko morrontzak tinko eta sendo dirau, esaterako, delituaren teoria orokorrak, horren froga gisa bai Alemanian bai Estatu espainiarrean ezaugarri zein eztabaida berdintsuak aurkezten dituela.

Are zehatzago: Espainiako Zigor Kodearen lehenengo liburua, Zuzenbide penaleko Zati Orokorrak arduratzen dena, ulertu nahi izanez gero, jatorri eta egitura filosofiko trinkoa duen dogmatikara (“gramatika unibertsala”) jo beharra dago, alemanek gehienbat azken berrehun urtetan landutakora alegia. Bai Jurisprudenzia bai gainontzeko operadore juridikoen eta legearen arteko zubi-lana egiten du zientzia penalak. Legearen esparru literala gainditzen eta, aldi berean, osatzen duen “hizkuntza berezitu” horren faltan, hortaz, jarduera juridiko-penalak mota guztietako gehiegikerien atzaparretan berme-funtzioa galduko luke.

Batek baino gehiagok agian honez gero pentsatuko du esandakoa neurri batean edo bestean beste zuzenbide arloetan jazotzen dela: baina puntu honetara ailegatu nahi nuen, izan ere, Zuzenbide penalean hiritarren askatasuna (“kartzela”) jokoan dagoenez gero, hizkuntza juridikoa are terminologikoagoa da, eta zehaztasun faltarik txikienak ere giza-eskubideen defentsan galera konponezina eta berme-maila jaitziera ikaragarria –beldurgarria– ekarriko luke. Beste hitzetan, kontinenteko Europan Zuzenbide penalaren zientziak kategorizazio kontzeptual eta horri dagokion terminologiaren bitartez interpretazio ahalik eta zehatzen bermatu nahi izan du, eremu penalean hain ohikoa den bidegabekeria saihesteko asmoz, hots, berdintasun printzipioa eta hiritar ororen giza-eskubideak gauza daitezen.

Horregatik, **nire lehenengo tesia** da Zuzenbide penalean, inon baino gehiago, terminologiak bermatzen duela jarduera juridikoaren funtzionamendu egokia eta, hori dela eta, inon baino terminologia gehiago dagoela. Horren muturreko isla, Zati Orokorrean –Zigor Kodearen lehenengo liburuan zein atariko titulu (1-137 artikulua)– topatzea badago.

Terminologia ez ezik, badago beste alderdia ere, zigor legeen testuetan –zein horren

“ **Zuzenbide penalean hiritarren askatasuna jokoan dagoenez gero, hizkuntza juridikoa are terminologikoagoa da, eta zehaztasun faltarik txikienak ere giza-eskubideen defentsan galera konponezina ekarriko luke** ”

”

itzulpenean– bereziki kontuan hartzekoa: eremu penalean nagusitzen dela gero eta indar handiagoz **interpretazio teleologikoa** alegia.

Zuzenbide osoko fenomeno honen nondik norakoaren berri emateak luze joko lukeenez, interpretazio mota honek gure ondoretarako ekar dezakeen traba azaltzeari ekiten baino ez naiz ahaleginduko, funtsean legeen ulermenean hitzez hitzeko idazketak garrantzia galtzean datzana, legeen bitartez lortu nahi diren helburuen mesederako.

Interpretazio literala, historikoa edota sistematikoa erabiltzen badira ere, zigor legeek pertsegitu beharko lituzketen helburuek bultzatzen dute hitzez hitzeko esanahi posibleen artean bat aukeratzera, askotan legearen zentzua “kanpotik” –teleologikoki– “zuzentzen” dela. Gure kasuan, Mendebaldeko Europako kultur-esparruan, oraindik onartzen den Estatu sozial, demokratiko eta zuzenbidezkoak ezartzen ditu abiapuntu eta helmuga baloratiboak: hau da, mota horretako Estatu batean bermatu behar diren zenbait printzipiok (gizatartasun printzipioa, erruduntasun printzipioa, proportziozkotasun printzipioa, birgizareratze printzipioa, ondasun juridikoen babes eksklusiboaren printzipioa, legezkotasun printzipioa, etab.) testu literalaren gaineratik mugak eta ñabardurak gaineratzen dituzte, era berezi batean legezkotasun xedapenen mugak literalak erlatibizatzen dutenak.

2. MEZGER. *Tratado de Derecho Penal*. Itzultzailea eta ohargilea: RODRIGUEZ MUÑOZ, Madril, 1935.

LANDA GOROSTIZA, Jon-Mirena. Unibertsitatearen zeregina legeingintza euskalduneari: zuzenbide penaletik egindako hausnarketa. *Eleria*. 8, 2001, 93-98



Are zehatzago: legearen esanahi literalaz gain, arauaren oinarrian dauden gatazkak konpontzeko irizpide baloratiboek aldarazten dute xedapenak itxuraz duen esanahia. Horregatik, legeen erabilera zehatz eta eraginkorrari begira, arauaren jasotzailea den gizarte-errealitatea kontuan eduki behar da, bereziki zientzia penalak zein operadore juridikoek –batez ere jurisprudentziak– errealitate hura ulertzeko duten modutik.

Nire **bigarren tesia** da, beraz, lan interpretatiboa arlo penalean zailtzen dela interpretatzeko modu teleologikoa nagusitzearen ondorioz. Hots, legeak pertsegitu behar dituen helburuetatik legearen interpretazioa gehiago ondorioztatzen da, hitzez hitzeko zentzu literaletik baino. Horregatik, aipatu helburuen atzetik dagoen errealitateak eta hori ulertzeko moduak baldintzatzen dute legearen ulermena. Itzulpena orduan beti landu beharko da filologian oinarrituta, noski, baina, aldi berean eta ezinbestean, legeak abiapuntu gisa duen eztabaida interpretatiboa ere ezagutu beharko da, itzultitako testuan aukera interpretatibo batzuk bai jasotzea baina, ordea, jatorrizko testuan zeuden beste batzuei atea ixtea gerta ez dadin.

Beste hitzetan, zuzenbide penalean interpretazio teleologikoak duen pisuagatik, itzulpenaren bitartez zehaztasuna galtzeko arriskua are handiagoa da, legearen testuak oinarri ditzakeen aukera interpretatibo guztiak ez islatzearen bitartez hain justu ere. Itzultzaileak, orduan, sinpletasunaren bila, itzulpen zehatzari baino, “interpretatzeari” ekin diezaioke konturatu barik.

“ **Zuzenbide penalean interpretazio teleologikoak duen pisuagatik, itzulpenaren bitartez zehaztasuna galtzeko arriskua are handiagoa da, legearen testuak oinarri ditzakeen aukera interpretatibo guztiak ez islatzearen bitartez** ”



Estatu espainiarreko egungo legeriari jarraiki Zuzenbide penala funtsean lege organikoen bitartez baino gauzatu ezin den neurrian –eta ondore horretarako Iparraldeko egoera parekoa izanik– Euskal Herrian indarrean dauden zigor-legeak Madril eta Parisetik zuzenean datozkigu. Ez Eusko Jaurlaritzatik, ez Nafarroako Gobernutik ezta Iparraldeko inongo erakunde propioetatik ere ez da posible inolako parte-hartze zuzenekorik lege penala sortzerakoan.

Honi gehitu behar zaio jurisprudentzia ere zentralizatua izan eta badela, legearen azpian egon den eta dagoen errealitatea zein hura ulertzeko edota baloratzeko modua baita adierazteko hizkuntzak ere Espainiako zein Frantziako Estatukoak izan eta badirela. Honek guztiak, euskara erabiltzen duen itzulpengintzatik begiratuta, areagotzen du erdal hizkuntza zein errealitateekiko menpekotasuna.

Nire **hirugarren tesia da**, hortaz, ilustraziotik aurrera sortu diren lege penalak zein horiekin lotutako irizpide jurisprudentzial zein baloratiboak (kultura juridikoa, alegia) itzultzerakoan nekez topatu ahal izango dela lagungarri izan dakigukeen **tradizio euskaldunik**.

**Konklusioa-laburpena.** Zuzenbide penalarekin zerikusia duen edozein jarduera juridiko euskalduntzerakoan ezin da ahaztu arlo honek azken berrehun urteotan izan duen helburua: hiritarrentzako bermea izatea, alegia, Estatutik etor litekeen gehiegikeria saihesteko. Zeregin horretan dogmatika penalak (edo zigor-zientziak) kontzeptualizazio zein horri dagokion terminologiaren bitartez lege-interpretazio oso hertsia landu du, Mendebaldeko Europa kontinentalaren tradizio germaniarraren ereduaren arabera. Operadore juridikoen –bereziki Jurisprudentziaren– lan interpretatiboa edo legeen eraketa ezin da ulertu, hortaz, aipatu dogmatikak sortu eta prestatu dituen kategorien logikatik kanpo.

Interpretazio teleologikoa irabazten ari den garrantziari esker, dogmatikaren lana gero eta gehiago ari da zuzenbide penalean islatzen, zigor-zientziatik bultzatzen diren printzipio eta baloreek –Estatu sozial, demokratiko eta zuzenbidezkoari dagozkionak– legearen zentzua “erabaki”, “murriztu” edo “birmoldatzen” dutelako, literaltasunak iraganean izandako lehentasuna erlatibizatuz.

Testu juridiko-penalak euskaratzerakoan jatorri germaniarra duen berrehun urteko tradizio dogmatikoari ez ezik, hura onartu eta birmoldatu zuten Estatu espainiar eta frantziarren berezitasunei ere aurre egin beharko die.

Baina esandakoa argitzeko asmoz, azter ditzagun Zigor-kodearen itzulpen-lanean topatutako zailtasunetariko batzuk.





### 3. Zigor Kodearen itzulpena: zailtasunetariko batzuk

Inolaz ere zailtasunen aurkezpen sistematikoari ekin ezin diodanez, **erailketarekin** zerikusia duten zenbait alderdi aztertuko ditut, “**con alevosía**” eta “**por precio**” (ZK, 139-1 eta 2) esapideak hain zuzen ere.

Nola itzuli “**alevosía**”? maltzurkeria, azpikeria, saldukeria, alebosia...?

Gaztelera duen esanahia kontuan hartuko bagenu, “**traición**” hitzarekin parekatu ahal izango genuke eta hori da hain zuzen ere eremu juridiko-penalean jatorriz zuen zentzua: hiltzea larriagoa zen, traizioz hiltzen zen neurrian, are arbuigarriagoa omen zena, “**ohorearen kontrako jarduera**” zelako. Beraz, bazuen halako **kutsu subjektiboa**, delitugilearen asmo gaiztoan zigorren larritasuna bidezkotu nahi zelarik.

Baina denboraren poderioz, hasiera batean zuen zentzu subjektiboa “**objektibizatuz**” joan da: hau da, alebosiaz dihardu, hiltzeko bide jakin batzuk erabiltzen dituen, delitua zuzenean edo beren beregi ziurtatzera zuzentzen direnak, ofendituarengandik etor litekeen defentsa indargabetzeko. Ez dauka hainbeste garrantzirik delitugileak zein asmoz diharduen, baizik eta ea kontzientzia ote duen erabiltzen dituen bidez eta bide horiek duten arrisku objektiboaz. Beste hitzetan: alebosiaz hiltzen denean, ez da gehiago zigortzen delitugilea are “**txarragoa**” dela baieztatu delako, baizik eta erabili dituen bideak, pozoia hala nola, bereziki eraginkorrak –arriskutsuak– izan ohi direlako hiltzeko orduan. Hil nahi izanez gero, baieztatuta dago bide jakin batzuk erabiltzeak –eta ez besteak– biktimaren heriotza gertatzeko aukera askoz gehiago dakartzala.

Ez nuke sakonkerietan sartu nahi, baina azaldutakoa nahikoa dugu, hitz honen atzean egon daitekeen arazo interpretatiboa ikus dezagun, azken buruan kartzela zigorra bost urtetan handitzea ekar dezakeena. Hau da, alebosia zentzu subjektibo zein objektiboan uler daiteke, eta bietan interpretatzen da gaur egungo jurisprudentzia zein, oro har, esparru juridikoan. Horren ondorioz, hitza euskaratzerakoan kontuan eduki beharko genuke legezko testuaren itzulpenak zein neurritan bi interpretaziook ahalbideratzen dituen eta aldi berean zehaztasun-maila nahikoa lortzen duen. Itzulpena “**maltzurkeria**” edo “**azpikeria**” balitz, ez ote luke izango itzulpenak kutsu subjektiboegia, gaztelaniazko bertsioan ia ehun urteren buruan indargabetu dena? Beste alde batetik, nola ezberdindu orduan alderdi subjektiboa zehazteko Zigor Kodean erabilitako beste esapideetatik, adibidez, “**maliciosamente**” delakotik?

Nola itzuli “**por precio**”?

Arestian aztertu dugun arazo antzekoa gertatzen da kasu honetan. Prezioaren truke hilez gero, erailketagatik erantzun behar da (139-2 ZK), giza hilketari dagokion zigorra (hamar eta hamabost urte bitarteko kartzela-zigorra) baino larriagoa dakarrena (hamabost eta hogeit hamar bitartekoa). Gaztelera bertsioan “**por**” (precio) hitzez hitz jasotzen da, doktrina zein jurisprudentziaren gehiengo oso zabalaren esanetan interpretazio subjektiboaren alde ulertu behar dena: hots, prezioaren inguruabarrak bakarrik ekarriko du erailketaren kualifikazioa delitugileak dirua dela-eta hil duenean. Nolabait subjektuaren motibazio-prozesua kontuan edukitzen da, horren zitalak diren zioengatik hiltzen denean, hiltzeko jarduerak zigor gehiago merezi duelakoan.

Aipatu interpretazioa ez da, ordea, baketsua: batzuek, aitzitik, defendatzen dute prezioa tartean egonik hilez gero, datu objektiboa baino ez dela kontuan hartu beharrik, kualifikazioa estimatzeko. Baina hipotesi honen aldekoek aitorzen dute haien proposamenaren kontra hitzez hitzeko idazketak jotzen duela, “**por**” delakoak kutsu subjektibo argia omen duelako.

Berriro ere galdera izango litzateke ea “**por**” hori islatu behar den erailketari dagokion artikulua euskaratzerakoan eta, hala balitz, nola. Kasu honetan, argudio filologikoak alde batera utzirik, argi asko ikustekoa da, artikulua honen inguruan bizirik dirauen eztabaida juridikoa euskaraz ere behar bezala ulertu ahal izateko, euskarazko bertsioa ahalegindu beharko dela alderdi subjektiboari lehenatasuna ematen, gaztelaniazko testuak duen “**por**”-en antzekoren bat bilatzen.

### 4. Azkeneko hausnarketa

Esandakoak balio beharko luke euskara juridiko-penala sortzerakoan dauden arazoez jabetzeko eta aldi berean egoeraren diagnostikoa egiten laguntzeko. Beste lurralde eta esparru geografikoetan hainbeste urte –mendeak– beharrezkoak izan badira kultura juridikoa sortzeko, guk ezin dugu galdutako denbora urte gutxi batzuetako ahaleginarekin konpentsatu. Beraz, helburua baldin bada etorkizunean eremu juridiko-penala bere osotasunean eta autonomiaz euskaratuta eduki eta erabiltzea, lehenik eta behin, nire iritzia apalean, **oraindik erronkarik premiazkoena kontzeptualizazioa jasotzea eta dagokion terminologia sortzea da**. Beste hitzetan: legezko testuak ez ezik, atzean dagoen diskurtso juridikoa ere adierazteko gauza izan behar dugu, eta horrek eskatzen du aipatu dudan kontzeptualizazio dogmatikoa euskaraz adierazteko terminologia sortzea. Izan ere, zuzenbidean oro har –eta zuzenbide penalean

bereziki– hitzek zehaztasuna eta segurtasun juridikoa bermatzen baitute.

Terminologiak bete beharko lukeen funtzioa, ordea, bakarrik gauzatu ahal izango da hitz eta diskurtso teknikoaren inguruan **adostasun zabala** lortzen den neurrian. Ikuspuntu honetatik arlo penalean egoera itxaropentsua dugu, beste zuzenbide-arloen aldean, euskaratze-lana oso urria izanik, oraindik ez direlako sortu erabiltzaile-talde ezberdinak, terminologia ezberdinak erabiltzen dituztenak. Hortaz, gehiena egiteko badago ere, hasiera batetik adostasunaren bila lan egin daiteke eta lan egin behar da alde guztietako **elkarlanean**.

Euskal Herriko Unibertsitate publikoan, duela zortzi urte zuzenbide penala Zuzenbide Fakultateko ikasturte arruntean euskaraz irakasten hasi zenez geroztik, aurretik genituen zailtasunak ikusirik, lanari ekin genion indarrez baina epe luzera begira. Baina duela hiru urte Zigor Kodea euskaratzeko asmoaren berri izan genuenean, Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutura eta, horren bitartez, IVAP-HAEera ere jo genuen, hain zuzen ere adostasuna ardatz izango zuen lana proposatzera. Handik sortu zen gure herrian, zoritxarrez, hain gutxitan gertatzen den hiru urteko elkarlan oparoa hiru erakundeen artean.

Laster argitaratuko den Zigor Kodeak ez du, ordea, meritu bakarra, alegia, elkarlanaren fruitua izatearena. Zuzenbide penalarentzat Zigor Kodeak duen garrantzia jakina da, zeren eta horretara biltzen baita eremu honetako arauketa gehiena. Beste arlotan lege asko badaude ere, zuzenbide penalean, lege berezi gutxi batzuen salbuespena alde batera utzita, kodea da benetako bizkarrezurra. Horregatik, hura itzultzea ez zen lan erraza, baina itzultzeak zuen abantaila zen esparruko terminologia bere osotasunean eta sistematikoki finkatzeari begira, lehenengo urrats sendoa emateko aukera genuela.

Nire ustez, terminologia sortu eta finkatzea baldin bada zuzenbide penalak euskalduntze-bidean eman beharreko lehenengo urratsa, **Zigor Kodea itzultzea, adostasun zabalean oinarriturik, zen egin ahal zen lanik zentzuzkoena**. Horregatik, mahai-inguru honetan dauden eta Zigor Kodea euskaratzerakoan lankide izan diren Andres Urrutia, Gotzon Lobera eta Jon Agirre jaunei nire eskerrik beroenak eman nahiko nizkieke: Mila esker.